

125. FITXA Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak garatu eta sustatzeko laguntzak (Erein Programa)

Nori zuzendua: toki-entitateak; toki-entitateen sektore publikoa; landa garapeneko elkarteak, baldin eta toki-entitateekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzen badituzte esku-hartze eremu baten aldeko proiektuak martxan jartzeko.

Sarbide-esteka: [Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuak garatu eta sustatzeko laguntzak \(Erein Programa\)](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira, 2025eko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak \(Erein programa\)](#)

Eremuak: Landa garapena

Zenbatekoa: 9.170.052 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/06/02

Laburpena

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko **landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko** entitate publikoei zuzendutako laguntza eskaintzea 2025eko ekitaldiko (Erein programa), 2023-2027 aldiko NPEPERen «Inbertsioak landa-eremuko oinarritzko zerbitzuetan» eskuhartzearen barnean.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Laguntzaren xedea da inbertsioak sustatzea **mota guztietako azpiegitura edo zerbitzuak sortu, hobetu edo handitzeko**, jarduketaren hauen esparruan:

- Uraren hornidurarekin eta saneamendurekin eta energia elektrikoaren eta gasaren hornidurarekin eta kanalizazioarekin** lotutako oinarritzko azpiegiturak (bai berriak, bai ordezkatu beharrekoak, ordezkatu ezean zerbitzuaren prestazioa baldintzatuko balitz; hori egiaztatzeko, arloan eskumena duen maila teknikoko hirugarren batek egindako txostena aurkeztu beharko da).
- Energia berriztagarrien erabilera eta energia-aurrezpena** sustatzeko azpiegiturak, tokiko komunitateari zerbitzuak ematera bideratutako eremuetan. Beraz, kanpoan geratzen dira ohiko

zerbitzu propioak ematera bideratuta daudenak.

- c) **Turismoarekin** zerikusia duten zerbitzuetarako proiektuak eta azpiegiturak: interpretazio zentroak/museoak eta turismo-bulegoak, bidezidor eta bide homologatuak eta horietarako seinaleak, autokarabanentzako aparkalekuak, etab.
- d) **Biztanle-guneak egokitzearekin** zerikusia duten azpiegiturak, haien hirigintza-oneratzea eta -egokitzapena xede dutenak: irisgarritasuna, lorategiak jartzea, argiteria eta hiri-altzariak.
- e) **Oinarrizko zerbitzuentzako** proiektuak: eguneko zentroak eta adinekoentzako egoitzak, haurreskolak eta farmaziak/botika-kutxak/osasun-zentroak.
- f) **Aisia, kultura eta kirolarekin** zerikusia duten zerbitzuentzako proiektuak: kultur etxeak, liburutegiak, erabilera anitzeko zentroak, kirol-ekipamenduak edo aisialdikoak.
- g) Ekipamendu komunitarioetako **irisgarritasunarekin** zerikusia duten proiektuak.
- h) **Industrialde txikiak urbanizatzeko** proiektuak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra** bitartean gauzatu beharko dira. Ez dira deialdi honen xede izango ez 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak, ez gastua 2026an soilik egitea aurreikusten dutenak.

Laguntzen zenbatekoa

Laguntza-eskaerak, onartuko badira, **gutxienez diruz laguntzeko moduko 6.000 euroko kostua** izan beharko du.

Lortutako puntuazioaren arabera, proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa **% 40tik % 80ra** bitartekoa izango da. Deialdi honetan proiektu bakoitzeko emandako laguntza **300.000 eurokoa** izango da gehienez ere.